

# Enkarterrietako ALTXORRAREN X BILA

## INGURUNE NATURALA FASEA

### 3. astea

Hainbeste mineral garraiatzea ez zen lan erraza. Teknologia eta baliabideak eskasak ziren. Baina garapenak okertutako planoak, trenbideak, funikularrak e.a. ekarri zituen eta horrekin naturaren aldatzea ere.

Gure ibilbidearekin jarraituz beste nonbait ikusiko ez ditugun paisaiak behatuko ditugu.



**burdinmendi**  
Enkarterri-Ezkerraldea  
naturgune didaktikoa

**Enkarterrietako  
ALTXORRAREN  
X BILA**

## Ibilbide gidatua

☠ 1. Orain dela 50 urte dinamitaz egindako leherketa baten ondorioz mundu osoko espeleologi eta geologi altxor liluragarrienetako bat aurkitua izan zen.

Galeria luzeek formazio karstiko izugarria eskeintzen digute. Horretan "estalaktita eszentrikoen" multzorik handiena ikus dezakegu. Edertasun horri esker dauden puntu horrek jauregi baten izena dauka.

Zein?

☠ 2. Euskal Herriko zuhaitz mota ezagunena haritza da. Zoritxarrez, gizakion ekintzaren eraginez (abeltzantza, olak, meatzaritza e.a.) hosto erorkorren baso ederrek atzerapen handia jaso zuten. Horregatik ezagunak bereziak dituen zuhaitz bat aurkitzen denean babesaren ematen diogu, zuhaitz singularra bilakaturik.

Zein da Enkarterriko zuhaitzarik sonatu eta garrantzitsuenak?



**burdinmendi**  
Enkarteri-Ezkerraldea  
naturgune didaktikoa

# Enkarterrietako ALTXORRAREN X BILA

☠ 3. Harriak, zuhaitzak e.a. ezagutu izan ditugu. Eta ura? Elementu natural honek ibaietan zehar bidaiatzen da. Gizakiontzako nahiz naurarentzako ezinbestekoa dugu: munduko ibai garrantzitsuenen inguruan zibilizazioak sortu direlako eta ekosistema anitzenak horien inguruan hazten direlako ere bai.

Hori dela eta, ibaiei buruz hitz egiterakoan, arto kontzeptuari buruz hitz egin beharko genuke: horra joaten diren ur guztiak eta inguratzen dutenak. Horregatik naturak ez ditu mapetako mugak edo herriak errespetatzen ezta ulertu ere egiten.

Enkarterriko historia Kadagua ibaiaren laguntzaz aurrera joan da. Kadagua Nerbioi ibaian ibaiaritzen da.

Esango al diguzu non jaiotzen den?

☠ 4. Uraren beste forma bat izotza edo elurra da. Nequan mendietan ugaria da eta uda partean eskasa. Hori dela eta gure Enkarterriko eta Euskal Herriko beste zonaldeko arbasoek neguko elurrari probetxua aterazeko haragia eta arraia kontserbatzeko zera asmatu zuten: erliebeaz eta kobazuloetatik baliatuz biltzen zuten elurra..

Horrela elurtegiak osatu zituzten, aintzinako hozkailuen ordezkarak.

Zer mendi magaletan aurkitu ditzakegu horrelakorik?



**burdinmendi**  
Enkarterri-Ezkerraldea  
naturgune didaktikoa

**Enkarterrietako  
ALTXORRAREN  
X BILA**

☠ 5. Galdamesko La Aceña auzoan pasealeku polit bat topatu dezakegu. Aintzinean meatzariak minerala garraiatzeko erabiltzen zuten.

Pasealeku honek 17 kilometro bete eta gero, La Aceña zer puntuarekin lotzen du?

☠ 6. Ingurua zaintzea ezinbestekoa da. Orain arte aipatu ditugun elementuak batez ere. Horrela, naturatik lortutakoa kalitate handikoa izango lizateke. Azken finean, guretzat eta ingurumenarentzat osasungarria.

Guzti hori dela eta, gure eskualdeko baserri eskoletan baratzgintza ekologikoa lantzen dute: produktu toxikorik erabiltzez ez duena. Naturarekin elkar ulertze bat egiten, simbiosi bat osatuz.

Esango al diguzu hauen artean zein den baratzgintza ekologikoan ikertzen duen baserri eskolak?

### Proba praktikoa

7. Zure adin taldeko unitate didaktikoa osatu beharko duzue honako honetan. Ireki inguruko landaretza eta animaliak aztertzen dituenak. Gure fauna eta floraz zenbat dakizuen jakin nahiko genuke.

Bukatzerakoan sartu kodea emaitzen taulan.



DBH-ko 1.º, 2.º, 3.º eta 4.º mailak

[www.burdinmendi.org](http://www.burdinmendi.org)